

**2002KO EKAINAREN 27AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zazpia.

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta bira

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Pello Garaialde Goikoetxea
Josi Insausti Mujika
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Aimar Larrea Garin
Leire Lopez Zurutuza
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge

ETORRI GABEAK: Jose Antonio Guirado Tristan
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Jon Berbel Aiestaran
Jorge Juan Outeiral Fernandez

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- MODIFICACION DE CREDITOS

Alkate jaunak proposamenaren berri eman du:

“GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzeko eta hauek finantzatzeko aurrekontu krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontu-partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egung	Aldaketak /	Behin betikoak
41.00.00.622.422.10.02	Er. eta eraik.: Aldagelak Murumendi ikast./	0	48.080,97	48.080,97
41.00.00.622.422.90.01	Er. eta eraik.: Aldagelak Alkartasuna Lizeoa/	0	141.237,84	141.237,84
50.00.00.622.611.10.01	Er. eta eraik.: Arlo ekonomikoko bulegoa/	0	60.101,21	60.101,21
GUZTIRA		0	249.420,02	249.420,02

EZOHIKO KREDITUAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak
2.00.00.710.000.00.06	E. Jaurl.: Lizeo eta Murum. Aldag. eta itxit. / Ezohiko Kredituak finantzatzeko aplikazioa/	26.444,53
2.00.00.870.000.00.01		222.975,49
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		249.420,02

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “kreditu aldaketa honen arrazoia zera da: Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak atera du ikastetxe publikoetan inbertsioak egiteko dirulaguntzaren Dekretua. Beraiekin hitzartu dugu hemen aurkezten diren inbertsioak egitea. Obrak lehiaketa bidez kontratatu behar direnez,

lehenengo pausoa da aurrekontuan kreditua aurreikustea. Inbertsioak, Murumendi ikastetxeko aldagelak, Lizeoko aldagelak eta arlo ekonomikoan egin behar diren aldaketak. Ikastetxeetan egin behar diren inbertsioak ordaintzeko, Jaurlaritzak kostuaren %55a jarriko du eta guk %45a. Dekretuak horrela agintzen du eta Jaurlaritza eta Eudelen akordio baten ondorioa da. Guk ordaindu behar dugun %45a eta arlo ekonomikoko obrak ordaintzeko iazko gerakinak erabiliko ditugu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da.

2.- ORDENANTZA. Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko duen udal-ordenantzari hasierako onespina ematea.

Alkate jaunak, ordenantza berriak jasotzen dituen aldaketa garrantzitsuenaren berri eman du:

“ARRAZOIAK

1.- Indarrean dagoen ordenantza 1997koa da eta ordutik hona lege aldaketa garrantzitsuak izan dira.

2.- Lege aldaketak hauek izan dira: Ibilgailuen erregelamendu orokor berria – Gidarien erregelamendu orokor berria – Zirkulazioko erregelamendu orokorraren aldaketak – Trafiko eta bide segurtasun legearen aldaketak – Zehatze jardunbide legearen aldaketak.

ALDAKETA GARRANTZITSUENAK

1.- Orain arte arau-hausteen izaerak arinak eta larriak ziren. Orain aldiz arinak, larriak eta oso larriak dira. Adibide bezala oso larrien artean, ausarkeriaz gidatzea, alkoholemia proban ezarritako tasa baino gehiago ematea eta abiadurari buruzko arau-haustek.

2.- Isunen zenbatekoa lehenengo ildotik mantentzen da, kasu batzuetan jaitsiz, euroa dela eta borobiltzeko. Orokorrean, Arinak 30 €, larriak 90 € eta oso larriak 150 €. Salbuespen bezala alkoholemiarenak izango dira, tasaren arabera 130 eurotik 310 eurora joango direlarik. Lehen ere horrela zegoen.

3.- Zentimoak kentzeko zenbateko egokiak jarri ditut. Borobiltzea tokatu denean beheraka egin dut.

4.- Zigor-isunak %20aren deskontutik %30 izatea pasatzen dira.

5.- Orain arte ibilgailuak ibilgetzeko posibilitatea ez geneukan ordenantzan sartuta eta hutsune latza sortzen zen, gehienbat autoa ibilgetu eta garabiaz erretiratu beharra izanez gero, garabia etorri bitartean. Ondoren ordenantza fiskaletan sartu beharko da ibilgetze tasa.

6.- Ibilgailu abandonatuen tramitazioa erabat aldatzen da. Lehen ibilgailuak enkantean jartzea eskatzen zuen legeak eta orain hiriko hondakin solidoren tratamendua jasotzen dute, tramitazioa erraztuz.

7.- Ikusirik datorren urtean Trafiko eta Aparkamendua guneez batzuetan erregulatu behar ditugula, hauei dagokion arau-haustea ere kontuan izan ditugu.

8.- Indarrean dagoen kamioientzako Alkatetza bandoa aldatu beharko litzateke, une honetan kamioiak Bernedo-eneko orubean aparkatzen dutelako eta bandoan beste leku batzuk aipatzen dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez erabaki da, hasierako onespena ematea eta jendaurrean jartzea alegazioak aurkeztu ahal izateko.

3.- ARAU SUBSIDIARIOAK. 4 Hako eta 8 Sko Arau Subsidiario aldaketaren behin-behineko onspena.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola hirigintzako batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“Gaia: 4 Hirigintza Areako eta 8. Sektoreko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren behin-behineko onspena.

Udalbatza Osoak 2002ko apirilaren 18ko datarekin, 4 Hirigintza Areako eta 8. Sektoreko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onspena eman zion eta espedientea informazio publikoan jarri zen probintziako Aldizkari Ofizialean, ‘Diario Vascon’ eta ‘Euskaldunon Egunkarian’ iragarkiari argitaratuz hilabeteko epean. Epe horretan Antonio Rodriguez Castro jaunak ALGAR S.L. ren ordezkari gisa alegazioa aurkeztu zuen.

Espedientea Garraio eta Errepide Departamentura bidali zen eta honek 2002ko maiatzaren 20an aldeko txostena eman zuen adieraziz 8. Sektorlean aldaketa batzuk egin behar direla, hain zuzen ere hauek: "Sasieta Mankomunitateko instalazioetako eraikinaren distantzia atzeratu egin beharko da, beste lursailen lerrokada jarraituz eta horren ondorioz, autobiarene galtzadatik 50 metrora kokatuko da.

Biaduktupean Bide Orokorren Sistema (2 S. O.), etorkizunean Udalak aparkaleku publiko bezala erabiltzea ezin da planeamendutik finkatu. Bere garaian Udalak eskatu beharko dio Foru Aldundiari erabiltzeko behar duen baimena. Izapidetzean eskaera onartzeko baldintzak ezarriko dira.

Ormaiztegiko Teileri-Zaharra 18 Areako aurreikusitako sarrera, area honetarako naiz 8. Sektorerako balioko du, izan ere ezin izango du berarentzat bakarrik sarrera bat izan. Eraikin lerrokadurei buruz, Egitasmo Partzialak finkatuko ditu. Dena dela errepidearen ertzetik, 18 metro bereiztu beharko dira. Aldi beran ikusten da ekialdeko azken berrogei metro "eraikigarria ez den lursail industrial" moduan eta zabalera guztian, hau da, errepidearen ertzeraino kalifikatzen direla. Errepidearen hiru metroko jabari publikoak ezin dute kalifikazio hori izan. Bere erabilerekin datorrena aplikatuko beharko zaie, hau da, "jabari eta erabilera publikoko gune berdea."

2002ko ekainaren 20ko datarekin, udal teknikoak ondorengo txostena eman zuen, aurkeztutako alegazioa partzialki onartuz.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatzarrari ondorengo proposamena egiten dio.

Lehenik. 4 Hirigintza Areako eta 8. Sektorleko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onespina ematea, hasierako onespina eman zitzaion dokumentuarekiko aldaketekin, hau da, Garraio eta Errepide Departamentuaren txostenak adierazitako aldaketak sartuz eta aurkeztutako alegazioa partzialki onartzen duen udal teknikoaren txostena jasoz.

Bigarren. Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea behin-betiko onespina eman dezan hala badagokio."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Eskaera eta galderen atala tratatu eta ebatzi aurretik, Andoni Antxia Batasunaren bozeramaileak, premiazko puntu bat sartzeko eskaera egin du, hain zuzen ere, Josu López Castañares jaunari buruzko mozioa.

Mozioa banatu ondoren, bozkatu da premiazko puntu bezala tratatzea.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ/PNV-EA, Batasuna)

Aurkako botoak: 4 (PSE-EE/PSOE, PP)

Gehiengo absolutua lortu denez erabaki da aipatutako mozioa, premiazko puntu bezala tratatu eta ebaztea.

Alkate jaunak hitza, Andoni Antxia jaunari eman dio eta honek mozioa irakurri baino lehen ondorengo esan du: “Josu Lopez orain egon den kartzelatik Fresnesera eramanez, badirudi hurrengo pausoa eman aurretik denak Fresnes Paris ingurua eramanez dituztelako. Josu ekainaren 18tik aurrera gose greban dago. Bere zigorra uztailearen 18an betetzen du, beraz kontuan izanda ekainaren 18tik gose greban dagoela ez dakigu nola iritsiko den egun horretara. Atxikimendu kanpaina egin dugu eta 2100 sinadura inguru jaso ditugu. Testuan aipatzen denez, mozio hau hainbat tokitara bidaltzeko asmoa dago. Baina bidali aurretik eta kudeaketa batzuk egin direlako erantzunak jaso ditugu eta gure eskuetan ditugu adibidez, Danielle Miterrand fundazioaren eskutitza, laguntza eskaintzeari buruzkoa eta “Observatorio Internacional de Prisiones” delako eskutitza.

Uztailearen 18a ailegatzen denean oraingo ez dakigu zein izango den egiazko egoera, zein baldintzetan utziko duten aske edo entregatua izango den. Are gehiago, oraindik ez dakigu Frantziak duen lau mugetan zein mugetan egingo dioten kanporaketa. Egoera argitu ondoren mozioa irakurri egingo dut:

“Batasunak aurkezten duen mozioa

Josu Lopez Castañares beasaindar preso politikoa zortzi urtez egon da Frantziako gartzelatan preso. Estatu Frantziarrak ezarritako zigorra datorren uztailearen 18'an beteko du eta datu guztien arabera Frantses Estatutik kanporatua izateaz gain, espainiar poliziaren eskutan utziko dute, nahiz eta losuk ez izan inolako epaiketarik pendiente Espainiako Estatuan, honek suposatzen duen torturatua izateko arriskuarekin.

Hau dela eta, Beasaingo Batasuna taldeak Udalbatza Osoari honako puntu hauek onartzea proposatzen dio :

1. Iosu Lopez Castañaresen sendiari Beasaingo Udalaren elkartasuna adierazi.
2. Iosu kanporatu dezatela eta ez polizi espainolaren eskutan ... utzi.
3. Mozio honen berri ondoren datozen elkarte eta jaun- andereei bidaltzea :

.Comité de Soutien aux prisonniers politiques.

-FIDH(Fédération Internationale des Droits de l'Homme).

-Europako parlamentuko Lehendakaria.

-Frantziako Justizia Ministeritzako buruari.

- " Atzerrigaietarako " " .

- " Bane Ministeritzako buruari.

-. " Errepublikako Lehendakariari.

- " " Lehen Ministroari.

-OIP (Observatoire Internationale des Prisons).

-OMCT Europe (Organisation Mondiale Contre la Torture).

-LCR (Ligue Communiste Révolutionnaire).

-CPT (Comité pour la Prévention de la Torture).

- Association Droit et Solidarité.

-APT (Association pour la Prévention de la Torture).

-Syndicat des Avocats de France.

-Asanblada Nazionaleko Lehendakaria.

-Alderdi Sozialistako Lehendakariari.

- " Komunistako " " "

-France Terre d'Asile.

-Les Verts.

-France Libertés.

-Amnesty International.

-ACAT Actino des Chrétiens pour rabolition de la Torture).

-CIMADE.

-Association Droit Devant.

-International Service for Human Rights.

-Askatasun publikoen batzordeko Europako parlamentuko lehendakariari.

-Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi komisionatua.

-Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Goi Komisionatua.

- 4.- Erabaki honen berri herri osoari eta komunikabideei jakinaraztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Orain artekotan Batasunak inoiz ez du adierazi elkartasun izpirik ere edozein ETako biktimekin. Gu ez gara sartuko eztabaidan Batasunatik datozen honelako mozio edo antzekoak.”

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Gure aldetik eta adierazpena horrela baldin bada, hau da, badirudi, espainiar poliziaren eskuetan utziko dutela naiz eta Josuk ez izan inolako epaiketarik pendiente Espainiako Estatuan. Hori horrela baldin bada, guk mozioa onartzen dugu. Mozioaren lehenengo puntuari esaten du, Josu López Castañaresen sendiari Besaingo Udalaren elkartasuna adieraztea. Hau Udalbatza honetan bertan onartuta dago. Hala bada Josu kanporatu dezatela eta ez polizi espainiarren eskuetan utzi, horrela legea betetzen delako eta hirugarrena mozio hau hor azaltzen diren elkarte guztiei igortzea, ondo iruditzen zaigu. Erabaki honen berri herri osoari ohiko bidetik egingo dugu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ/PNV-EA, Batasuna)
Aurkako botoak: 4 (PSE-EE/PSOE, PP)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da mozioa.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean hauek azaldu dira:

Publikoan dagoen pertsona batek mozioan eztabaidatzean egin diren adierazpenei buruz:

“Al Sr. Jose Luis Elorza quisiera preguntarle que entiende él por derechos humanos y donde está la defensa de los derechos humanos.”

El Sr. Alcalde le indica que está permitido opinar, pero no entrar a debate. En consecuencia le sugiere, que de su opinión o que plantee una interrogante, pero que posiblemente no se le contestará.

Publikoan dagoen pertsona berak: “Que quede como interrogante, aunque me gustaría que se me contestara.

Cuando una moción viene de Batasuna, automáticamente no la aprobamos. Me pregunto si el Sr. Alcalde hubiera incorporado la moción al

orden del día del Pleno, si se lo hubieran propuesto a él. En este caso es mi hermano, pero también es un vecino del pueblo.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “En este Pleno hemos presentado muchas mociones por el tema de los derechos humanos. Cuando la moción ha sido de condena a ETA, Batasuna jamás ha apoyado. Cuando hace seis meses ETA mató a dos ertzainas, ninguno de los representantes de Batasuna aquí presentes, estuvo en ningún acto de solidaridad, de apoyo a la familia, etc. En ningún caso decís en vuestras mociones que vuestros hijos, vuestros compañeros, amigos, son miembros de ETA.

En esas condiciones venir a hablar de derechos humanos y de solidaridad no tiene ningún sentido. Yo he propuesto muchas veces a Batasuna que yo estaría dispuesto a firmar en cualquier momento un único manifiesto de derechos humanos para todos iguales, incluyendo las condenas a la tortura y todo lo relacionado con ello. Lo que no puede ser es defender los derechos humanos de los familiares que son miembros de ETA o están apoyando a ETA, y que en ningún caso cuando las víctimas son las de ETA que es una organización que se propone matar a personas que no opinan lo mismo que ello o están en contra de sus planteamientos, en ninguno de esos casos se mencionan los derechos humanos ni se solidarizan con ellos. En este país estamos viviendo en una esquizofrenia total, en la cual no se puede apoyar un único discurso de derechos humanos porque es traidor, colaboracionista, etc. Ahora bien si es de alguien de la órbita de ETA, de Batasuna, entonces hay derechos humanos y se apela a todos los organismos que existen, aunque a bastantes de los que aquí se citan para enviarles la moción, en otro momento se les critica. Estamos hartos de esta situación, ya que no hay manera de llegar a ningún acuerdo porque hay gente que está dispuesta a seguir matándonos.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean bilera, arratsaldeko zortziak hogeita bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta ziurtatu dut.